

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1. Parte-hartzaile guztiek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte parte hartzeko eskabidearekin batera:

A. Hezkuntza Administrazio honek deitutako lekualdatze lehiaketetatik 2010-2011 ikasturteaz geroztik onetsietako batean parte hartu duten izangaiei parte hartu zuten azken lekualdatze lehiaketan lortutako behin betiko puntuazioa berretsiko zaie, ondoko honekin bat etorritz:

-Puntuazioa berretsiko zaie Hezkuntza Administrazio honek dei egindako lekualdatze lehiaketa horietan parte hartu zuten langileei, praktiketako funtzionario gisa lehiatu ziren langileei izan ezik.

-Parte hartu zuten azken lehiaketan lortutako behin betiko puntuazioa berretsiko da, salbu eta merezimenduen baremoaren I. atala, Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizioz baloratuko baitu.

-Parte-hartzaile horiek, soilik, kasuan kasuko lekualdatze-lehiaketaren deialdirako eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren hobetutako merezimenduak aurkez ditzakete.

-Puntuazioa berresteko baldintzak betetzen dituzten interesdunek eskuratu dezakete azken lekualdatze-lehiaketan lortutako behin betiko puntuazioa, eskaerak aurkezteko aplikazio telematikoan. Orobat, aplikazio horretan adieraziko zaie interesdunei noiz bukatzen zen eskaerak aurkezteko epea parte hartu duten azken deialdian.

-Behin betiko puntuazioak berretsiko dira deialdi honen I. eranskineko merezimenduen baremoan ezarritako balorazio irizpideei jarraituta.

Giza Baliabideen Zerbitzuak lekualdatze lehiaketaren puntuazioari ofizioz erantsiko dio parte hartu duten azken deialdian eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren parte hartzaileek hobetutako merezimenduen puntuazioa, baremoaren

ondoko atal hauei dagokienez: 4.1 eta 4.2 atalak; 4.3 ataleko aholkulari lanpostuak; 5.3, 6.4 eta 6.5 ataletako merezimenduak (Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak izendatutako epaimahaietan parte hartzea), parte-hartzaile bakoitzaren espedientean dagoen dokumentazioari jarraikiz.

Parte hartu duten azken deialdian eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik hobetutako merezimendu berriak aurkeztu nahi dituztelako edo konforme ez daudelako, parte hartu zuten lekualdatze lehiaketaren azken puntuazioa berretsi nahi ez duten parte-hartzaileek propio adierazi beharko dute parte hartzeko eskabideari dagokion laukitxoan. Parte-hartzaile horiek, baita lehiaketa horietan parte hartu ez zutenek ere, merezimenduak frogatzen dituen hurrengo dokumentazioa erantsi beharko diote parte hartzeko eskabideari, aurkezten direnak bakarrik baloratuko baitira:

Deialdi honen I. eranskinean argitaratutako baremoko 3., 4.3 ataletan (prestakuntzako aholkulari lanpostuak izan ezik), 5.1, 5.2., 6.1, 6.2, 6.3 eta 6.5 ataletan (beste hezkuntza administrazio batzuek izendatutako epaimahaietan parte hartzea) eta 6.6 atalean aipatu merezimenduen baloraziorako frogagiriak.

B. Euskaraz jakin beharra duten lanpostuak eskatzen dituzten izangaiek EGA-Euskararen Gaitasun Agiriaren edo titulu baliokide baten jabe direla frogatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, salbu jadanik zerbitzu orrian jaso bada.

C. Atzerriko hizkuntzaren profila (frantsesa, ingelesa eta alemana) duten irakaskuntza espezialitateei dagozkien lanpostuetarako izangaiek aurkeztu beharko dute Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 11ko 32/2013 Foru Aginduaren I. eranskinean jasotako titulazioak dituztela PI, PF eta PALE profiletarako frogatzen duen dokumentazioa, non ez diren jasotzen profil horiek haien espediente pertsonaletan.

D. Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizioz sartuko ditu baremoko 1., 2., 4.1 eta 4.2 atalei dagozkien merezimenduak; 4.3 ataleko aholkulari lanpostuak; 5.3, 6.4 eta 6.5 ataletako merezimenduak (Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak izendatutako epaimahaietan parte hartzea), parte-hartzaile bakoitzaren espedienteetan dagoen dokumentazioari jarraikiz.

Halaber, Giza Baliabideen Zerbitzuak ofizioz baloratuko die, baremoko 6.7 atalean, zerbitzu orrian ageri den euskarazko titulazioa, euskaraz emandako espezialitate bati atxikita dauden edo horren titular diren irakasleei, ez badute behintzat parte-hartzaileek merezimenduen baremoko 3.3 atalean aipatu euskarazko titulazioaren frogagiria aurkezten eta, horrekin batera, baremoko atal honetan baloratzeko eskatzen, deialdi honen hamahirugarren oinarrian, 2. ataleko biharren paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

2. Agiriak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izanen dira. Horretarako, Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeetako zuzendariak ahalmena dute agiriak konpultsatzeko, Hezkuntza eta Kulturako kontseilariak maiatzaren 18an emandako 182/2001 Foru Aginduan ezarritakoari jarraikiz (2001eko 79. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 29koa).

3. Parte hartzeko betebeharrak guztiak eta alegatutako merezimenduak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete beharko dira.